

ZER


BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

144n. Zenbakia Iraila

1990




BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**ARTZAIÑARI
OROITARRIA**


— PANKORBO-ALDEAN
— EUSKELERRITIK URREAN

EUSKALERRIAN EUSKERAZ



1990 - 91 I KASTU RTEA

OGEI TA IRUGARRENA
BIZKAIERAZ



IRU MAILLA' ETA ALKARRIZKETA

**EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN**

ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

O R D A N A: 1 1.000 peseta

IZENA EMOTEKO-TOKIA: EUSKERAZALEAK

**COLON DE LARREATEGI, 14-2
BILBO.**

URRUTIZKIÑA 423.53.22

23.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS: LUNES, MIERCOLES Y VIERNES

O MARTES Y JUEVES

HORAS: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO: 11.000 pesetas

INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.

IKASTURTEAK ETA IKASTAROAK

Oporraldiak azkenerantza doaz eta ikasten asteko sasoiak dator, ikastaroak urreratzen dira.

Eta ikasgaien artean, garrantzi handiko bat euskaldunontzat euskerea ikasteko ikastaroa da. Erria maite badugu, erriak sortu dauan eta erriari berezitasuna ematen dautson euskerea maitatu bear dogu. UMANDI Araba'ko izkuntzalari euskaldunak oraintsu Araia bere errian egin dautsoen omenaldian esan dauan lez, "euskera barik ez dago Euskalerririk".

*

AURTEN 23.^a

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k 22 urte daroaz Bilbo'n euskera irakasten. Irail onetan asten dan ikasturtea 23.^a da. Ez ete gara lenengoak?

Bilbao euskalduntzea zan elburua, baiña on oso gaitxa dana argi ikusten da, eta orain 23 urte baiña askoz gaitxagoa gaur, batez be urrutikuskiñaren eta izparringien indar handia aurka dagoalako.

Baiña elburu on lortzeko urtero aletxu batzuk eriten dauz gure Alkarteak eta ez dira gitxi gure alkarte onen ikastaroetan euskerea ikasi eta gaur argi ta garbi euskera egiten dabenak. Eta darabilen euskerea Bizkai'ko euskera garbi eta ederra da. Zelako poza artzen dogun olako bat aurkitzen dogun bakoitzean!

ARRISKU-ALDIAN

Orain ogei ta iru urte ez zan gauza erreza ikasturte bat eratzea: Irakasleak urri eta gertatu barik, ikasleak be gitxi eta arlo onetara sartzeko bildurrez, eta bein eta

barrero zemaik eta begiratzeak polizi-aldetik... eta on orrelan izan arren irakasleak eta ikasleak ba-ziran eta lana egin al izan zan.

ORAIN ZER?

Orain aldiak asko aldatu dira. Alde guztietatik entzuten da euskerearen aldeko zabalkundea, edonondik dator-ku euskera ikasteko adorea, eta orain ikasleak urrituz doaz eta ikasturte naiz ikastaro asko zarratu egin bear, ikaslerik ez dagoalako.

Egia da ikasturteak eta ikastaroak eurak be ugaritu egin dirala, baiña dana kontuan, ikasleak asko ugaritu eta guztientzat irakasleak agertu bear ziran.

Guk, dana dala, aurrera egiten dogu: Aurten be eun ikasle baiña geiago izango dira eta urte guztietan lez ikastaroa asi eta jarraituko dogu.

*

ONDORENAK

Izkuntza bat ikastea ez da gauza erreza, baiña guria benetakoa danean lortzen da. Askok lortu dabe EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k eraturako ogei ta bi ikasturteetan. Gaiñera gure ikasleak beste erreztasun bat dauke: Bizkai'ko euskerea ikasten daben lez, euskera egiten daben errietara joaten diranean, an berba egin leikee ango erriarrakaz edo opor-aldian naiz astialdian beserrira joan eta ikasi daben euskerea erabilli egin leikee.

Dei bero bat egiten dautsegu ba, euskerea ikasi nai daben Bilbao'tarrai. Zatoze gure ikastarora eta asi ikasten. Ikasteak berak poztuko zaitue.

AGUR SABIN...!

Lentxuago-gerotxuago emengo bizitza itxi bearra doguna jakinarren be, goibeldu egiten gaitu geure gogoko lagun edo adiskidien batek betiko **agur** egiten dauskunean.

Ba-nekian gure olerkari aundia aspaldion ondo ez ebillana, baiña uste-uste barik aren eriotzearen barri jakin izan nebanean, guztiz tamaldu izan nintzan.

Urtean bein pozik eta anaiatasunez agurtuten genduan alkar, Olerti-Egunez, Larrea'n, eta olerkari-arloko joan-etorriak eta abar alkarrerri azalduz, geure olermen-gogoak azazkauez, egun pozgarria egiten genduan, olerkari ta olerki-zalien artean, karmeldarren inguruko bakean, Onaindia Aba olerkarien zuzpertzaille nekagatxa lagun genduala: Mezea, mai-ingurua, sari-banatzea, alkarriz-ketea, abesti eta abar.

Idauan urte bian, ainbat bidar leiaketa orretan sari-tua izan genduan Muniategi tar Sabin'en utsa izan dogu, batzar maitekor aretan, gogoz an, geure-artean, izaten genduanarren, soñez ara eltzeko eziñean zan-eta.

Benetako olerkaria, ona ta sakona izan dogu Sabin, edozer gai bertso egokiz onduten ekiana eta biotz-zirkingarriak doguz aren olerkiak.

Illarte ekin izan dautso idazten, bai neurtitez eta baita itz askatuz bere. Zigur nago il-aurrean be zeozer idatzita itxi egikeana, neke barik ekiten izan dautso, bere ezbear eta gexo-aldi onetan bere, gogo-gogoko eban olerkigintzari ta idazteari-ta.

Bere gexo-aldian be adoretzu bizi izan zan, gure Sabin, azken-aldian izan nebazan bere ezkutitzetan oartuten nebanez, baiña Erio'ak erruki barik eroan dausku gure artetik, gogoko genduanok tamaltasunez eta goibel itxita.

Euskeltzaleok ba-dakizue aren lanen bari ta ez daukat aittetu-bearrik.

Gizon apala, olerkari argi eta jakintsua, lagungiña, kistar ona ta zintzoa izan zala esan ezkerro, guztia dago esanda: Beragaz itz egiten ebenen gogoa irabazten ekienetarikoa genduan, ba, Muniategi'tar Sabin, Arteaga-Gaategiz'ko seme olerkari ta idazle zintzo eta argia.

Agur, Sabin, olerkari lagun gogoko orri, or, goietako zorion betean alkartu gaitez an arte.

AURRE-APRAIZ'tar BALENDIN'ek

IRI OLERKARI

S. Muniategi gogoan

Argi jarioz aiz i, ene olerkari,
esku bete itz eure esanera otzan,
jo ta jo beti eder oroen zizel-lan,
bitxienak eskeiniz euskal mintzoari.

Euk dakartzak arnasa nire leioari
eta bizi beroa sedazko argitan.
Orrexegatik aukat urruz begietan
ire sugarretako kantuen mirari.

Muine-muinetik darik iri ortzondoa
eta goitiko izar guztien grazia.
Euk dakarstak eguzki guztien azia

aingeruz betez nire pozaren ildo.

Eu aiz zuku gozodun zirrara mordoa,
amilura gardenen iturri bizia,
eder zale guztien azkarri ordia,
gorri-gorri, ezpane beteko ardoa.

Egoetan daroak arrano-indarra,
odolean kolore danen eraso.
Eder miñetan dakark arnasa osoa
olerki egindako odolaren sugarra.

A. BIDAGUREN A.

MUNIATEGI'TAR SABIN JOAN JAKU

Isil-isillik eta ezelako gaiso-albisterik gure artera eldu baiño lenago, joan jaku Muniategi'tar Sabin olerkaria, gure ZER onetan bere olerkiakaz, illero, ainbeste orrialde bete dauzana. Bere illetak ospatu eta urrengo egunetan eldu da gure artera bere eriotzearen barria.

Egun batzuk lenago jakin gendun bere lan guztiak argitaratzeko asmotan ebillala Urkiza aita karmeldarra, baiña berak ez dau izan liburu barri on esku-artean izateko zorionik.

Bere omenez argitaratzen doguz ZER onetan lau olerki, bizi zala eta argitaratzeko berak bialduak eta

gaiñera beste lan gogoangarri bat, naikoa luzea: **Enbeita'tar Kepa'ren bertsoetatik jasotako esakun-ale bitxiak** deritxon lana. Berrogei ta lau aapaldi dira, bakoitxa lau bertso-lerrokoak, Urretxindorra'ren pentsabidea ta bertso-gintza agertzeko egokiak.

Bejoako joan jakunari gure esker ona bere laguntzalan guztiakaitik, bere senideai eta adiskideai gure alkar-samintasunaren agiria eta irakurle guztiak eriotza onek ekarri dauskun samintasunaren agerpena.

ZER'en IDAZKOLAKOAK

BIOK BAT

Ementxe zugaz, gogoan ta oldozkunean maitezko geltasun La betikoar lurruna; zaratotz bakoitzean kuxu-muxu biguna: bildur ta arrenkura bagako alkarpena.

Poztasunezko betetasun bete-betean, goretsi ta, amets dagit oiturazko menez, bizi-alkartasun sendozko egoitzapean biok bat, gogozko lokarri eroangarrienez.

Ementxe nigaz, betirakoi; argi ta samur, neke ta eragozpenak eutsi ta baztertuz, biok bat, itxaropenezko emoi ta itur.

Egun bakoitzeko sorgai illun edo argiz, datorrena clan lez onartu ta begipetuz ni zugan, zu nigan, gaurgeroko gogo biziz.

GAUZA ARRUNTENAKAZ

Amets egitearen ederra! Nik amets dagit gauza arruntenakaz ta, irudimen aundiz, begirapenez ateak osoro irikiz gogo egalaria, ikus-miratsu doakit.

Amets egitea, izadiaren jaun ta jabe, izatea da, sakelean edukitzea; mundua itxaroz arnaspetu ta, goi ta be, da, zillarra urregorritu al izatea.

Amestuz, bidea, errezago egokitzen ibilte oro ariñago egiten zaigu apaltasunez burua ba-dogu azaltzen.

Egunero dagit amets, goiz ta arratsero, maitasuna izanik bizitzeko elburu aurrera jarraitzeko lanbidez, lerroz-lerro.

BETIKO BAKARRA

Gaba ta Eguna bein batez. Bitartean zer? Atzoko egi asko gaur guzur utsak dira. Gaurkoak be, bardin, laster doaz sastegira. Zenbat oldozkun illun ta burubide oker!!

Atzo goraldutakoa gaur oinpean dabil udazkeneko orbel antzo aizepetua, zurrunbillezko nasturan —ez ardatz, ez gurpil—, egunen norabideetan ankazgoratua.

Ta, olaxe gizaldiz-gizaldi, mendez-mende, aldatuz, erabarriz dabil mundua, ustekizun ta gogai, amets barrien mende...

BERTSOETAN

Baña aldi oroz dirau, gazte ta laztantsu,
bai baserrietan ta bai urietan ere gurtua,
maitasunak dargi eder, lerden eta gartsu.

ESKU-MAKIL

Esku-makil bidelari onek ondo daki
nire egun sortze ta illuntze ooren barn.
Beragaz dagurt bizi-zear azke ta, argi,
egungo euzki ta, izar-arteko illargi...

Makil buru ganean jartzen dot neure eskua,
biziberako ibillietan, guziz neuretua:

batzuetan aintzamenex ta bestetan nekaldua,
bizitzako negar-malkoz ondo gatzitua.

Makil onen laguntzaz nabil erabat alai,
ta Udazken orbeltsuari arpegi emonez
begi espelak doakidaz gogotsu, nora-nai.

Bizigune mengelak baiña, Jaunari esker,
oraindik nenbilke bizi-izatearen poztasunez
goibeak begipetuz ainbat gauza eder.

MUNIATEGI-TAR SABIN

ENBEITA'TAR KEPA'REN BERTSOETATIK JAZOTAKO ESAKUN-ALE BITXIAK:

1	4
"Sasijak sortzen dira solo ederretan, nekazari alperrak ba'dabiltz orretan.	Egizko maitasunak sortzen dau batasuna, batasunak indarra, indan:ak osasuna.
2	5
Gauza txarren jatorri arrokerija dozu; nagikerija, barriz, ustelaren lengusu.	Alguztiduna goyan, gizona lurrian, euzko abenda zarra lur onen ganian...
3	6
Zer ein biogun? Euzko bakotxak Korañe zorrotz bata erosi ta, sustarretik sasi-sastrakak ta, bedar txar oro ebaki"..	Sortaldetik datorren Eguzki argiak Pozez zabaltzen dituz udako loriak.

7

Len Martin-Andra Mariz
eltzen zaneke
zugatzak orriz janzten
ziran ederto.

13

Zugatzak jantzi dabe
soñeko barrija...
Txori alayak autu
nun egiñ abija...

8

Epallak ogetasei...
Kukuak kuku...
Zugatzijan goxetik
abestu dausku.

21

Gexo dagona beti oi dabil
osatzailliaren billa;
Negu gorrijan billosik dagon
zugatzak nai dau Orrilla.

9

Maiteak maitatzen dauna
maitatzen dau nun-nai...
Egizko euzkotarrak
euzkeria be bai.

22

Gitxi itz ein, asko entzun,
iñoiz bez asarratu.
Egokijena ei da
ixateko zoruntsu.

10

Ni enok ez zozo ez birigarro,
eztakit, ba, abesten oik baxen arro,
eztakit ba, kuku ez miku,
txindor bat baño, anka ta piku.

23

Bakotxak bere maillan gustiok
daukaguz geure akatzak,
baratz onetan sartzen dirala
Txiroak eta aberatsak.

11

Uda-gau zoragarriz
ozkarbi danian,
iñuntzak laztan dagi
zitori ganian.

24

Zelan dakuskuz geurian lorak
ta besteenetan arantzak?
Betaurrekoak doguzalako
zurituak eta baltzak.

12

Zozo-birigarriak
txiruliruli...
Udabarrija dala
gaur esan legi.

25

Urko laguna egiz maitatzen
euki daigun arduria,
Goi-arauz bardin erabillirik
"Zeuria" eta "Neuria".

BERTSOETAN

26

Iñor beti loi, norbera garbi,
Zu obendi, neu donia.
Auxe bai dala Doibatz aurkako
Guzur ontasun dongia.

27

Maitasuna egizko
Zorion-bidea...
Beste bide gustiak
Guzur-utsak dira.

28

Ez al dakixu zein dan
Jainkoaren legia?
"Bakotxari beria,
bakotxari beria".

29

Janian, edanian,
itz eta egipen
neurritz eztabixenak
nire ondolik ken...

30

Aberri-oitura loiz
Ama zikinduten
dabiltzanak, eztakit,
zentsuna nun dauken.

31

Jel-bidez zintzo
egin daigun lana,
zoriondu dedintzat
Euzkadi laztana...

32

Itzak bakarrik egipen barik
berialaxe dagoz geldute
eta euzkotar "koipetsueri"
Euzkadi'k onan esango dautse:

33

"Euzkeldun nintzan, euzkeldun naz,
beti euzkeldun, izan nai neuke,
Eta nigaz bat ein nai dabenak
betoz biotzez... euzkeldundute.

34

Euzkerea da da euzkeldunentzat
ozkarbiko eguzkija,
geure gogua, geure bijotza,
poz eta atsegin gustija

35

Ekatx deungia, gure artera
sartu dan erdelkerija.
Jaso daigun, ba, ekatx onen gain
Euzkera maitagarrija.

36

Negu ankerrak il daun baratza
berbixi udabarijak:
Euzkelerrjaz berberau egin
gura dau Jel- alderdijak.

37

Zer balio dau zuri, baltz, gorri,
edo nabar ixatiak,
baldin ezpa-dau zer ikusirik
orraz Euskera maitiak?

38

Erdi billotsik ba-dago bere
jantzi biogu Euzkera,
erabilteko txukun
aide batetik bestera.

42

Itzakin egipenak
batera dirala,
Bijotzdun danak geukin
datorz beriala.

39

Gurasoak ein leiken
lanik ederrena,
Umiei argitzia
kistar adimena.

43

Sortu da Emakume
Abertzale-Batza,
Maitasunezko lora
guztijen baratza.

40

Adimena ba-dago
bizturik Goi-Argiz,
bijotzak beren lanak
zintzo-zintzo dagiz.

44

Andereño ta Andere
bikañak ugari
dira gaur Jel-baratza
orren ikerlari.

41

"Izarrak baño gorago dago
argi guztien argia,
jakiturien itur-burua,
izatez amai bagia".

MUNIATEGI-TAR SABIN



TXANGO JAKINGARRIA

Baztan-aldez

Karmeldarrok, oituraz, ez dogu opor egiterik. Uda urreraturik be, geure komentuetan jarraitzen dogu, oizko bidetik urtenda dabillenen bat izan ezik. Gure lana ezin daitegu saiets itxi. Alan be, guk, karmeldarrok, illean beingo ibillaldi edo txangoak euki oi doguz Berbizkunde ostetik irailaren erdirarteraino. Txango au, beti izaten da, luzea ta garrantzitsua.

Guk, Larrako lauk beintzat, atzo, bagillek 20, ospatu genduan geurea. Olakoetan, mendira danean gure joatea, janaria geugaz eroan daroagu; urriñeko mendi ta tokiren batera ez danean, jatetxe baton da gure oturuntza. Gu giñoiazan bidean baegozan jatetxe ederrak eta ez genduan ezer eroan bear izan.

Bederatzietan urten gendun Larratik iru lekaide ta bertoko langille gazte bat; tau, beraz. Durango'n sartu gintzazan autopistan, Irun'erañño joateko. Ez geunkan lasterka zetan ibillirik, baiña iradu politean genbiltzen, aize-aizeka, ta atzera geratzen ziran Berriz, Zaldibar, Ermu, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Itziar, Zumaia, Oikina, Zarautz; emen ibilliaren zorra ordaindu bearra; eta aurrera, Orio, Donosti, Oiartzun eta Irun...

Eguraldi exkasa? Nik, denpora ona egingo ebala, iragarrita neukan. Baiña Donosti'rantza eldu giñanean, baltz, betosko biurritz agertzen itxasaldea. Laster jagi ziran andik laiño euritan izor meta ikaragarriak, aizeak bultzaka lurraldera ekazanak. Gu Anoeta parera giñaneke, euri-tanta lodiak etozan gure Renault gaiñera, eta Oiartzun'dik Irun'era bitartean uiola zirudian.

Orrela Bidaso-ertzetik gorantza. Troka au zugatzmota askoz josirik, zoragarria jatzu, kilometro moltzoan; ondoren jatortzu Bera, errixka polita, beetik gora ta zearka arakatu genduna. Erritxo danetan lez, emen be, taberna ta jatetxetan jentea noiz elduko zain. Gu zerbaiten guraz gengoan, eta akeit-etxe batera jo genduan, orruz egoan tripa-zorriari poza eskintzen. Beste begi-zizta bat kaleai, Pio Baroxa'ren etxe ta inguruai, eta aurrera. Etzan euririk, eta eguzkia laiño baldarren sabela eten nairik.

Or Lesaka'rako bidea; erri loratsu oni iru-lau jirabira egiñik, leengo bidera, Irundi'k Iruña'rakora. Or Yantzi'ko Bentetxeak. Kamio asko goitik beera; Sunbilla, jatetxe nasaiakaz. Eta ber-bertan Donestebe, emen bazkalduko dogu Santa Maria jatetxean. Baiña guk oindiño

aurrerago joan bear dogu, Donamaria'ra; emen karmeldar lekaimen komentua dago, toki eder-ederrean; oneik ez dabe oititz bakarrik egiten, baita ortuan lan egin eta liburuak azal ñabarrez apaindu be: nik ona ekarri oi ditut enkuadernatzeko liburuak; orretan dituzu lekaimen oneik. Ondo ta merke. Leku askotatik ekarten dautsez lanak.

Ozta-oztan ordu biak dangaka. Gu laurok maian gagoz; etxeoandra ta neskameak jatorkuz, alai ta irribarretsu eta aukeratu dogu jatekoa: baiñak, lebatza, bildots-saietsak eta mai-azkenak; danetik jan dogu, ugari ta gozo. Ez gagoz txarto euskal lurra zearkatuz, muga igaro ta gure Iparraldeko edertasunak, etxe, zelai, landa ta itxas-ertzak ikuskatzeko. Bai ego eta bai ipar, eder-edarra da, izan be, gure euskal erri maitea. Zaindu ta ederragotzen, saia gaitezana.

Ba-goaz Baztan lurralde zear; Oronoz igarota, ezker itxi dogu Bertiz-aran baratz sonatua, bardin Arraioz, Irurita, Okaritz eta abar; ikus Lekarotz, beean Kaputxi-noen Ikastetxe nagusia ta gorago erria. Elizondo ta Elbetea igaroz, eskumatik Arizkun gaintxoan gagoz, erri oni buruzko ainbeste gauza gogora ekarriz; Agoteen auzunera jatsi gara, eta emen Nik "Milla euskal olerki eder" liburuan sartu neban "Agotak" poesi bikaiña azaltzen dautset.

Prantzi alderako bidea barriz arturik, or aurrez aurre Amaiur, bore Gaztelu oroigailu ospe aundikoa, eguzkiz dirdir, erakusten dauskula. Otxondo'n egotaldi laburra, emen beiñola osoturiko parkean ara ta ona egurasten ibilliz; bazkariak eskatzen dausku ori. Eta barrero, kotxe barne, beerantz beti; Dantxarinea baiño pizkat lengoeago, ezkerre artu ta Urdazubi'n gara, erriari itzulingurua egin eta Atsular'en jaiotetxea ikusten. Nire lagunen poza onen aintzinean! Eguzki ederretan, eta uda asikeran berdez ase-ase!

Barrero erpidera, ta mugara orduko, ezkerretik Zugarramurdirako bidea, azken urteotan nasaitu ta bikain jarria.

SORGIÑEN LEZA

Leenago, gaur eta gero be izango, ba-dau osperik Zugarramurdik. Uritik bertan dago, egoalderantza jatsiaz.



Leza aundi bat daukazu emen, sakon-zabala, euskal errian beste bat ezagutzen ez dan lakoxea. Barrutik, iparretik egora, lats edo erreka bat jasten da, inguruak goi ta albo lagunduta, ots ikaragarria ateraten dauala. Iñoizkoren baten katedralik ikusi ba'dozu, olakoa baiño be ikusgarriagoa. Antxiña-antxiñakoa, jakitunak diñoenez, eta bakotxak ikusi daikenez, Magdaliense deritxon garaikoa, olako koba-zale diranentzat.

Bost-sei urte dirala, ainbat barrizatze-lan egin zan bertan. Mailladiak igon ta jasteko, itzaldiak egiteko irakastegi antzekoak, urak obeto zuzendu, garketak, egalak txukundu ta abar. Sarrera leen aske egoan, gaur ate luze dotorea dago, eta leza on ikusteko garrez doazanak 110 pezeta ordaindu bear dabez. Andra bat dago atean dirua artu ta txartela emoteko arduera daukana. Erritik seireun bat metrora dago, ta kotxeak ateraiño eltzen dira. Gu joan gintzazanean ez ebillen jente askorik barruan, baiña andreak esauskunez ainbat doaz leza ikusi guraz.

Sorgin-leza deritxe gaur askok toki oni. Eta barruari "Deabruaren Katedrala". Amazazpigarren mende asikera, izen aundikoa izan zan Koba-zulo au. Napar goialdean batez be sorgin-izena bala-bala ei ebillen, ementxe alkaturik gizon eta emakume sorgin entzutesuenak. Kondaira interesgarria, bene-benetan. Emen-

ditxetik bereziki sorgin-ikara euskal erri osora zabaldua izan zan. Inkisizioak artu eban eskua, eta esaten ebena egia ala guzurra zan jakiteko Alvarado inkisidorea ibilli zan Zugarramurdi ta inguruetan billaketan, eta pertsona ugari aurkitu ebazan errudun, "40 atxilotu zituzten eta Logroñora eramanak izan ziren".

Onakoetan, beti ta nun-nai izaten dira buru agertzen diranak. Zugarramurdiko goraberetan, bi izan ziran besteak beste Graziana Barrenetxea, erregiña, ta onen senarra Migel Goiburu, erregea. Bakotxak eukan bere arazoa: iltzaille, Joanes Etxalar; Maria Txipia, sorginkerian jakintsu; Joanes Goiburuk, txistua jotzen eban eta Juan Sansinek, tanborra.

Salakuntzetan agertzen danez, oneik ziran sorgiñai leporatzen jakezan pekatuak: 1) Deabrua jainkotzat eukitea; 2) itxasoan ekatxak sortzea; 3) bidean, abereen eta pertsonen aurkako gaiztakeri ta kalteak egitea, eta 4) gau-txorien antzera, odola edan eta olakoak egitea. Bigarren atalean batez be, au da, itxasoan olatu izugarri ta ekaitz bizi ta zirimoltsuak jagi-azoaz, Ziburu ta Donibane Loitzune'ko mariñelak ikaraz egozan. Zugarramurdi ta Kantauri zuzenean ur dagoz.

IPARRALDEAN

Antxiña bateko muga itzungiz doa, azkenengo arnas-kadak emonaz: karnetik eskatu bere ez. Gero, Aihoa, Ezpeleta, Kanbo, Uztaritze, Baiona... Nibe ta Adur ibaiak ur loitan etozan. Karrikak zuri ta apain, jentez beterik. Katedrala ikertu dogu astiro. Argi asko ta autortegi ugari. Altaretan frantsez santuak, Teresatxu ta Lurdes'ko Ama Birjiña buru dirala. Zazpirak dira. Arratsalde ederra.

Ango gure anai ta aberkideai agur egiñik, Angelu, Miarriz, Bidarte, Getari, Donibane Lohitzu, Urruña, Beobia, Irun... Oiartz parean artzen dogu autopista. Donosti'tik laster kafesne pizkat, eta serioски etxera.

AITA ONAINDIA



EUSKERAZ

EGUNA

Aspaldi ontan, erakunde ta agintari abertzale artean, kezka ta ardura nabariak ikusi at izan doguz euskerazko egunkari bat argitaratu bear dala-ta. Orain arte euskeraz oso ta utsean egindako izparringi bakarra EGUNA dogu. Gure guda aldian sortu ta bere bizitza labur-laburra baiña ondore andiko ta onuragarria izan zan.

Guda aldiko ingi edo paper zar artetik atara ta eskuartearen darabilgu EGUNA'ren ale bat ain zuzen 135'garren zanbakia, 1937'ko bagillaren 9 gn.eguneko. Lemoa, Galdakao, Larrabertzu ta beste inguruko erriai buruz guda-albisteak emoten dauskuz. Beraz, Bilbo'ko azkenengo egunak ziran ba, jakiña danez, amar egun geroago, bagillaren 19 garren egunean, paxistak Bizkai'ko uriburuan sartu ziran. EGUNA'ren azkenengo zanbakia 139'garrena zalakoan nago. Len esan dogun lez, benetan bizitza laburra: 139 zenbakiak bost illabete ta erdian argitaratuak.

Aldi artan, mutil gazteak gintzazala, Bilbo'ko Eusko Gaztedia'n jo-ta-ke giñarduan abertzale arloetan, batez be euske-
re gure izkuntza maite ta zoragarria buru-belarri ikasten.

Guda oñan gengozala EGUNA'ren lenengo zenbakia poz-
pozik artu ta ospatu genduan eta, gelditasun-aldietan, baita gure guda-oñetako albisteak bialdu argitaratu egiezan.

Arrezkero gizaldi erdi baño geiago igaro da eta euskeraz soil-sollik asteroko bi iruren bat bakarrik ikausi at izan doguz. Euretari-
ko beten izena EGUNA berbera da ta "katea ez da eten" ikurrizta arro erakusten dau. Izan be, aldi egokiak ez ziran izan; diktadura gogorpean berrogei urte luzetxo bizi bear izan giñan-ta.

* * *

EGUNKARI BARRIA

Dirudinez gaur egunean asmo sendoa somatzen da, euskal jakintsuen inguruan, barrero euskerazko egunkari bat argitaratzeko. Ontarako lenengo urratsak oraintsu egin dira. Eusko Jaurlaritzaren Jakintza Sailak lan-talde bat sortu dau ta beste erakunde bat, "Egunkaria Sortzen" deritxona, asmo berberakin ari da.

Nik neuk beintzat alegin guztiak asmo bakar baten alkar-
tzea, oba izango litzakela uste dot.

Ez da makala talde oneik leporatu daben zeregiña. Edozein egunkari bideratzeko, eta batez be euskerazkoa izan ezker-
o, ainbat eragozpen goitu bear izaten dira. Sarri askotan ikusten doguz Iur jota geratzen diran egunkariak. Ez da arri-
tzekoa; ba onelako egitarau edo proiektuak arazo zailak eta eztabaidagarriak ugari sortzen dabez.

* * *

ARAZOAK

Arazo zail eta garrantziena ekonomi aldetik dago inõlaz. Edozein eginkizun edo elkarteak, iraunkor al izateko, norbe-

rekiko naikotasuna euki bear dau. Bere zer-egiñetan eralketa guztiak ordaintzeko diru aria irabazten ba'dau, iraunkorra dala esan geinke. Bahia inõoren lepotik bizi bear izan-ezker-
o, orduan sortzen dira korapillo ta oztopoak, batez be emoten dautsoen diru-laguntza guztien edo erri-altxorrena ba'da.

Aitatu dogun zailtasun ori, irakurleai menpetuta dago bere-
ziki. Argitaraldi bakoitza zenbat alekoa izan bear da, danok saldutakoan dakarrezan mozkin edo irabaziak naikoa izan daitez-
an egunkaria ondo jarraitu al izateko? Kopura au lortu ezin ba'dau, laguntza artu barik ez da izango eginkorra. Zoritxarrez, danok dakigu euskal irakurleen urritasuna nabarmen-
na dala.

* * *

ZELAKO EUSKEREA

Euskerazko egunkaria oso bearrezkoa dan-ezker-
o, betor zorionean. Ain garrantzizko dan albistea abertzale guztiok poz-
pozik artu dogu. Alan da guztiz bere, nere baitan alako kezka edo larritasuna susmatzen dot. Egunkaria argitaratzen ba'da zelakoa izango ete da euskerearen jokaera ta kazetariak erabiliko daben iztegi-gintza? Oraintsu Deia'n irakurri dot euskerazko egunkari barri au izan bear dala "bakarra, plura-
lista, autonomia eta titularitate konpartituduna". Olako adia-
rezpena euskeratza artu ete leike? Bene benetan diñot, au irakurri ta gero, len aipatu, dodan kezka sendotu egiten jat neure biotz berrenean. Tamalez oituta gagoz onelako ta antze-
ko sasi-euskera mordollo, naiz irakurten naiz entzuten komu-
nikate bideetan. Izan leiteke emen egotea, ezkor egiten gai-
tuen zioak.

* * *

EUSKALKIAK

Izan be, Aurre-Aprai-
z jaunak ZER aldizkari onen 140'gn zenbakian diñoan bezela, ba-dago euskera arloan perestroika egin bearra. Batua dala ta ez-
tala, azken urteotan euskerari egiten dautso kalte negargarria geldituko ba'litz eta euskerearen arduradunak, perestroika baten bidez, arauak eta joera bide jatorrera aldatuko ba'lebez, orduan bai euskerazko egunkari barria lan-tresna ona ta egokia izango litzakela gure izkuntzarako. Au bai premiñazko eginbearra. Iragarri ta irakurgai geienetan ardura-gabetasun mingarria nabaritzen da; bai itzetan eta bai joskeran, erderakadaz kutsatuta agertzen dira-ta. Naizta euskal jatorrak eta ondo ezagunak edo euskeraren sustraitik egoki asmatu al leikiezan itzak izan, inõlako begirune barik, erderara jotzen da tamalez.

Eta euskalkiak, batez be guretzat ain maitegarria dan biz-
kiera, aintzat artuko ete dabez? Laster argituko dira gure eztabaidak.

IDIGORAS'tar JOSEBA ANDER

AURTEN BARRIRO

BILBO'N ETA EUSKERAZ

Guztiok dakigu Bilbo'n ainbat euskaldun dirala, bertan jaioak edo inguruko errietatik etorriak, baiña euretatik askok ez dauke astirik edo gogorik Euskalerriko gaiak buruz dan ekiñaldi edo aste batera etorteko.

Dana dala, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, aspaldiko oitura bateri jarraituz, Euskal Aste bat eratzten dau aurtan be, Bilbo'n eta euskeraz, Bizkai'ko euskerea erabilten dala. Ba-leiteke Gizpuzkeraz be berbaldiren bat edo batzuk izatea, baiña beti euren euskera errez eta ulerkorragaitik Bilbo'n be errez ulertzekoak eta ezagunak dirala.

GAIK

Oraindiño aste onen egitaraua ez dago guztiz zeaztuta, baiña bai gai batzuk aukeratuta edo eskiñita, gero azken-aukeraketa eta izlariak billatzea egiteko:

Euskerea bera gai dala, Euskalerri osoan euskerearen eguna urte bakoitzean erri baten ospatzea aztertuko genduke.

Elertiaren arloan aspaldion dago gure artean euskal idazle izan diran abade guztiai omenaldi bat eskintzeko ustea. Arazo on aztertuko litzake.

Kondaira, euskaldunen istoria ezagutzea abertzaletasunaren iturria dala edozeñek daki eta arlo onetan ainbat gai bururatu jakuz: Enkarterria ta Bizkaia, Erdiaroko jazokizunak eta Oñatibia'tar Manu'k oraintsu erderatuta argitaratu dauan liburu ederrean agertzen diran beste gai asko, esaterako errietan eta itxas-ertzean kofradiak izan daben garrantzia eta onegaz batera doan euskalerriko baseleiza edo ermiten jakingarriak.

Lutelestia edo jeografia be jakin-bearreko gaia dogu: Euskalerrri leorra ta ezoa, Kantauri eta Auñamendi mendikateak banatzaille dirala.

NOZ ETA NON

Oraindiño zeaztu bank daukaguz gauza oneik, baiña sasoirik onena azillaren azkenengo astea izango dala uste dogu. Artu begie kontuan Bilbo'ko eta Bizkai guztiko irakurleak, egun orretan berbaldietara etorteko bitartetu bat izan dagien.

Urte guztietan lez, eta jabeak orretarako gertu izango diralako usteaz, Eskolapioen Ikastetxean, Errekalde kalean izango dala uste dogu.

Itxaropentsu eratzen dogu ba aste au eta euskaldunak ez dauskuela utsik egingo uste dogu.

EUSKERAZALEAK

ATEJOKA

Eldu da bai niretzat
sutondorako ordua
negua urbil da ta
autsek menperatua.

Oldolean daroat
taupakoen gudua
eta argi ondakintxo
lorriñez bete eskua.

Ba dakit urbil dala
euri-jasen multzua

ta laster asetuko
gauaren egarsua.

Neure onean nago
erdi-mozkor burua
azken zurruta otza
edontzian gertua.

Zertako utz aulkia?
Ain goxo subil-sua!
Ba dakit ate joka
nor dan ain azkutsua.

Alperrik atalagak,
otoitz eta salmua.
Errukige ausiren
ateko zorroilua

eta nire argien
orpo bedeinkatua.
Ba datokit barrura
izotzaren zantzua.

A. BIDAGUREN A.

ARNAS BARRIA

Jaunaren arnasa da...
zerutik etorri da
lurra gaizkatzera;
argiaren indarrez
illuna urratu bear
izarretan bera.

ONDAMENDIA

Gizadia jausita,
berenez okerrera
makurtuta dago;
indartsuak zapaltzen,
beartsuak azpian
gero ta miñago.

Gizadi oro egon
sastei ustel antzera
gaisoak artuta;
osagillea, nun, da...
lurreko semietan
indarrak aulduta...

Uri aundietara
begiratu ezker
indarra zan nausi;
burdiñea ta sua
eriotz ta odola
zergaitik nagusi...

Gizadia nunnaitan
egiatik igesi
zoroen bidetan;
gizadiaren etsaia
arrokeriz ase ezinik
ondamendietan...!!!

NOIZ ARTE?

Samiña ta negarra,
larri, dabilatzaz deika
Aitaren aurrean;
noiz arte ainbeste min
biziak ondatuaz
zoritxar artean?

Lurra ikaratu da
Arriak lotsaraziz
gizonen miñetan;
ibaiak gorri doaz

itxaso sabelera
ikus-min baltzetan.

AITAREN ERRUKIA

Semien zoritxarra
ezin geiago jasan
Aitaren biotzak;
zuzentasun indarrez
arteztu nai zituan
gizonen bizitzak.

Sorkaldean sortu zan
egiaren abotsa
aragiz jantzirik;
egizko gizona zan
Egillearen itza,
lurra arriturik.

ABOTSA

Erbear t'eriotzaz
naikotu dabe Aita
semien miñetan;
Semea igurtzi dau
ta lurrera bialdu
salbamen lanetan.

Beartsuen aldezko
jakituria dakar
bideak argitzen;
giza-buru-biotzak
aureratu nai ditu
egiak oroitzen.

Goserik ez dau gura,
ez dau nai zurbildurik
argalez gaisorik;
bera da bizi jabe
lur ta ondasunak
semeentzat sorturik.

Miseririk ez dau nai...
ez da, berez, zillegi
beartsu iltea;
eskurik samurrena
beartsuentzat dauka
eskeintzen betea.

GILTZAPETUAK

Giltzapetuak dagoz
kaleko espetxetan
ta norbere baitan;
egikera larriak...
katei orrek apurto
nai ditu egitan.

Gizonak gizonari
sort dausoz lakioak
burdin kateizkoak;
egi-zaletasuna
galdu da gizartean...
zorigaiztokoak!!

Gizartean banaka...
gizartean erri lez
galdu zan egia;
ortik dator burruka,
sarri, ustelkeria,
eriotz bidia.

Jainko Bialduari
ez jagokizan ongi
ainbeste txarkeri;
lotsea gizonari,
ta lotsea lurrari,
zaindu ebanari.

Zapaltzailleitsuak
argitutera dator
egiaren bidez;
iñori lur kentzea,
iñoz, ez da zillegi
nauskeri sapaltzez.

Lurra udabarria,
gozarotsu, maite dau
eguzki argitan;
gizonak bere egia
gozartu nai zearo
ardura aunditan.

Bakea gizartean
bakea norberegan,
egiaren itza;
zuzenbide garbian,
legez ta maitasunez,
aurkitzen biotza.

PAULIN

ELEIZ-BURUAK (GOTZANAK)

GOIRIA

Eleiz-Buruan artean aurkitzen lenengo maillan da aitasantutza. Jesukristok berak irasi-sortu eban aitasantutza. Baiña ez dot ezer esango gai oni buruz idazlan onetan, ZER aldizkari onetan bertan argitaratu bai neban idazlan bat. (ZER, 1989'gko. epailla-16 orrialde. ikusi).

Beste eleiz-buruai begira mintzatuko gara labur-labur.

GOTZANAK

Gotzaiak apostoluen jarraileak dira ta eurek zuzendu bear dabe Eleiza Aita Santua buru dala. Jesukristo handik artu eben apostoluak agindu au ta Gotzaiñak be elburu berau dauke arein jarraileak dira ezkerro.

Aita Santuak zuzentzen eta izendatzen dauz Gotzaiñak. Aita Santuaren laguntzailleak dira Gotzaiñak Eleizan. Apostoluak lez munduzear ebenjelioa zabaltzea da Gotzaiñen elburua, baiña bereziki lurralde batean. Oraingo Gotzaiñak mugak daukez euren aginpidean, baiña apostoluak euen aginpidea bera, nagusitasuna be bera. Euren mugape-lurraldeko egizko buruak eta artzaiñak dira.

Iru almen daukez Gotzaiñak: irakatsi, santutu ta zuzendu.

Kristok Eleiza sortzean oiñarri sakon eta sendoak emon eutsazan; orretarako aukeratu ebazan amabi gizonalmen eta eskubide osoak emonaz. Gaurko Gotzaiñak eta joandakogizaldietakoak bardin, apostoluen jarraileak dira, beraz Kristorenak. Ortik zor jaken serbitsua ta menpakotasuna.

Gotzaiña batasun-ezaugarri da. Ain zuzen be batasuna zan Jesukristoren amets andia. Buru bat, artzai bat eta artalde bat.

Gotzaiña apaiz nagusia da bere eleiz-barrutian. Erriaren artzai da Gotzaiña, Jesukristoren ordezkari.

PAULO DONEA GOTZAINZA GORESTEN

Bere idazkietan asko goraltzen dau Gotzaiña. Ona bere itz batzuk. "Izan be edozein apaizpuru, gizaretetik artua ta Jainkoari dagokioznetan gizakien aide jarria da, pekatuakaitik eskingai ta opariak eskiñi dagizan, baita bera be argalkeriz inguratuta dagoan ezkerro, ezjakin eta okertuak samur erabilli dagizan. (Ebertarrei, 5-1-2).

Zuen artean lan egiten diarduenai ta Jaunagan zuen buru ta onulari diranai, menpekotasuna agertu dagizuela eskatzen dauztuegu zuei, anaioai. (Tesalonikakoi, 115-12). Beraz otzala, begirunea ta menpekotasuna erriaren zuzendari ta artzai diran Gotzaiñak.

GOTZAIÑA AITA SANTUAREN LAGUNKIDE

Aita Santua da oiñarri Eleizan. Bera Eleizaren buru nagusia. Baiña ez dago bakarrik Eleiza zuzentzen. Gotzaiñak laguntzen dau-
tsoe lan andi-onuragarri onetan.

Gotzaiak dagien lana era bitarikoa izan daiteke: Aita Santuari laguntzen eta euren eleiz-barrutikoak zuzentzen. Ezin banandu leitez Aita Santua ta Gotzaiñak.

Batera jo izan dabe beti gizaldiz-gizaldi Aita Santuak eta mundu osoko Gotzaiñak. Batasun au argi ikusten da Eleizaren edestian eta

Batikano Bigarren Batzarraren ondoren batasun au indartu ta sendotu egin dala aitortu dasakegu.

Urruti ta baso-mendietan eta mixiño-lurraldeetan bizi diran Gotzaiñak eurek be bat eginda bizi dira Aita Santuagaz. Urruñen bizi diran Gotzaiñak be Aita Santuarengana urreratzen dira bost urtetik bost urtera euren eleiz-barrutietako gora-berak agertzera.

GOTZAIÑAK EUREN ELEIZ-BARRUTIETAN

Gotzaiñak zuzentzen dauz elizkizunak; berak dagiz apaiz erri-gizonak erlijio-arazuak aurrera egin dagien. Izar lez da kristau erri-arentzat. Apostoluak Eleizaren oiñarri durala argi agiri da Apokalipsis Liburuan, Eleuz Gurasoetan eta liturjian.

Batzarrak berak be Ebanjelioa eta Egiñak aitatuten dauz apostoluen sortzea ta jarraikera egiztuteko. Ebanjelioan eta Egiñetan ikusten danez Apostoluak batera dagie beti danean. Gauza bera irakasten dabe aide guztietan eta erabagi andi-garrantzitsuren bat artzeko danak batera artuko dabe.

Bigarren Batikano Batzarra kuzaro mintzatu zan gotzaiñoaz. Lenengo Batikanok be argi andia egin eban gai oni buruz.

LENENGO TA BIGARREN BATIKANO

Aldi aretako munduaren egoera ta goraberak geldie-erazo egin eben Lenengo Batikano. Aita Santuaren lendakaritza bakarrik azaldu al'izan eban naizta sakonkiro ez; Gotzaiñakaz Aita Santuak daukaren ar-emonai buruz ezer ez. Bigarren Batikanok egin bear izan eban Ian au.

Dakigunez Bigarren Batikanok zurtasun eta adore andi-biziz Ian berezi au XXIII'garren Juan Aita Santuaren esanak jarraituz. Baiña au be esan bear: gauza guztiak ez ziran argitu. Dana dala gai garrantzitsuetan batera jo eben danak, eta gero egindako Sinodoetan-da argi andiagoo egin da. Teologo batzuk urriñago eldu dira.

GOTZAIEN BATZARKIDEGOA

Aita Santua da Eleiza orokorraren buru gorena. Eskugo osoa dauko Gotzai guztietan eta bakoitzagan; orobat Eleiza guztiko sinis-mendun guztiekan eta bakoitzagan.

Gotzai-batzarkidego au ez dira Gotzaiñak Aita Santua eurekin ez dala. Gotzai dagie batzarkidegoa Aita Santua buru dala. Aita Santuak aukeran erabilli daiken eskugo gorena ta orokorra Eleiza guztiarentzat Kristoren Ordezkari dalako, orobat Eleiza osoaren Artzain dalako.

Batzarkidego onen barruan gotzaiñak bere Buruaren lendakaritza ontzat artuta, euren eskugo dauke, ez euren erriarentzat bakarrik, baita Eleiza osoarentzat be. Espiritu Santuak indartzen \$au eren barik euren tankera ta bizi-era. Aita Santuak bakarrik egin leikez Batzar Nagusiak. Orobat buru egin eta zuzpeltu. Batzarkidego-eskubide berau erabilli leike mundu-zear dabazan gotzaiñak Aita Santuagaz batera eginda. Batzarkidego au Jesukristok. Berak sortu eban jainko erriaren dezbardintasuna ta orokortasuna bereizteko. Baiña Kristoren artaldearen batasuna ausi barik. Apostoluen batzarkidegoa ta gaurko Gotzaien batzarkidegoa bat-bera da.

Eta esandakoa naiko Bigarren Batikanok gotzaiñak buruz egin dauana jakiteko.

ERIOZ-DANTZA BILDURGARRIA

Amaika inpernu ba omen dituzte drogazaleak...!

Kartzela-inpernu.

Emagaldukeriaren inpernu.

Salatarien inpernu.

Erremediogabeko gaxoaren ospital-inpernu.

Norbere burua xistenaz apurtzen dituztenen inpernu.

Maitasun-eziñaren inpernu.

Eta danen azpitik, drogari zor zaion serbitzu-inpernu: onek irteera bakarra du, utsa, ezerreza, norbere buruaren desegitea, aizken-aizkeneko ezbear guzien maillan...

* * *

Inpernu oien mailla guztiak jeizten dituzte drogazaleak.

Banan-banan eta ariñ-ariñ.

Mailla guzti oiek berriro, bere oiñez, igotzeko zeiniek izango du indar...?

* * *

Drogaren lenengo okerra, zorabiatzeko bildurra biotzean sortzea da.

Zeren bildur? Droga-ezaren bildur.

Bildur orrek estutzen dio biotza drogazaleari.

Nun eta nola droga billatu...?

Ta, gero, zer?

Lapurretan ekin, lotsarik gabe;

erailketan, bear bada,

eta ala gertauko balitz.

Ondoren, kartzela.

Ta, gero, zer?

Neure gorputzarekin merkatu egiñ, lotzakizunik gabe.

Neure aragia saldu diru-paperetan.

Ta, gero, zer?

Lagun-urkoa salatu bear bada,

droga ematekotan,

drogaren truke.

Ta, gero, zer?

Zorabioa, kirio-naaste,

gaixotasunak, ospitala.

Ta, gero, zer?

Gero eta areago neure burua apurtu

eta birrindu.

Ta, gero, zer?

Maitasuna saldu, aztu,

biotza legortu,

anima uztu,

borondatea galdu...

Ta, gero, zer?

Aizken maillara eldu:

lurrean loietan etzanda,

drogaren egarritan,

amesetan,

gose amorratu batean...

Jostorraz-akuilluaren zai,

zorabiozko bildur

eta ikara utsetan.

Beerago eziñ.

Lur-jotago eziñ.

Eriotz muzu-luzea zai.

Gizona, Jainkoa'ren seme,

munduaren errege,

txerrikumeak baino areago,

lokatzetan leporaño,

ar edo eme

naasian,

aragi illun-orixka,

zuloz zauritua,

zornaz betea...

* * *

Orrek zer-ikusi gutxi

du poesiakin.

Gaitz utsa; ezer onik ez.

Eriotz-dantza zorabioa.

ANES

JAKIN-EZA

Geure baratzen, zugatz andian
abar artian ezkutauta
bere kabia, udabarrian,
egin dau txori bizkortuak.

Birigarrua, geure laguna,
geure malluki —zaintzen daunak.
Marraskilluak, geure areyuak
jan ta garbitu landar danak.

Lau txorikume dagoz abian,

lumaz estaltzen egotxuak.

Lazter, bai, Lazter, andiak einda
abia itxita, juango dira.

Astea igaro. Mundua ikusten
pozik juan dira txorixtuak.
Abia utsik. Eztakar amak
iñorentzako janaria...

¿Ba dakizue ze ikusi dodan
geure auzo igertegian?

Birigartxua ilda, itota.
Lenengo egazka, bertan jausita,
jakin-eziñaz gaixiotxua!

* * *

Euzko gaztedi! Ba zuaz azken...

¿nori jaramon egin biar?

Gaztia zara. i0i, jakin-eza!

Ezta zerua igertegia.

UTARSUS

IRUKOITZA

I

"EUSKERA? ILKO BALITZ OBE, EZ BAI DU EZERTAKO BALIO...!"

Baserritafa zan bera.

Baserrian azi ta baserrian bizi.

Euskeraren goraltzak egiten ari giñan bere aurrean: Europa'ko izkuntzarik zaarrena zala, bere mamian jakinduriaren aberastasun ugariak zituala...

—"Euskera...? Ilko balitz obe, ez bai du ezertako balio...!".

Orrela erantzun zidan nik izketan bukatu baño lenago.

Ez dituk ik, gizajo orrek, erru guztiak.

Ez, orixe!

Ire buru-barruan sartu nai nintzake unetxo batean, barru ortatik Euskerarekiko zeak nola ikusten diran jakiteko.

Aleginduko naiz:

Amaren aotik ikasitako Euskera baserri, inguruan ibiltzeko serbitu dizu, baño errira joatean, milla moduko artu-emanetan ez dizu serbitzu aundirik egin...

*

Kultura gai guztiak, maixu erdaldunak, erderaz ematen dizkiote eskolatan ume euskaldunari...

Zu ere, nere baserritar ori, tarteko ziñan. Nekeak ugari eraman ondoren, kulturarik ez buruan, goxotasunik ez biotzean...

Zure iritxirako Euskerak zuan erru onen kulpa guztia.

Baña etzan Euskeraren errua...!

Ez, orixe!

Gizarteak du errua.

Ume euskaldunarekin egiten dan pekatu ikaragarriaren errua ez du Euskerak, Euskera bastartzen duan gizarteak baño...Kulturagaiak ume euskaldunari erderaz ematen dion gizarteak du erru ikaragarria.

Nungo Pedagogiak erakusten ote astakeri ori!?

Arritzeko al da orrela tratatutako umeak Euskera gorrotatzen astea?

Baserrian automobil txiki baten bearra zeukezuten.

Zu ziñan etxeko maiorazgoa ta txofer ikastera kalera jetxi ziñan.

Txofer ikastolan erdera berriz ere.

Tutik entenditzen ez ta buruz ikasi ziñusten galdera ta erantzun guztiak. Amabost eguneko lana, sei illebeta kosta. Ezer ez ikasteko...

Soldauskan pasatakoak etziran obeak izan...

Gaxotu ziñan artan, berriz, sendagillea erdalduna. Aren aurrean, beia beterinarioren aurrean bezela ikusten zenduan zeure burua...

Eta zure aitaren eriotz aurretik gertatuak? Nola konpondu notario erdaldun arekin?

Ziñera ba'zoaz, erderaz.

Periodikuak, erderaz.

Trenen txartela ateratzeko ere, erderaz.

Donosti'ko kale baten berri jakin nai badezu, erderaz...

— "Ez bai du ezertako balio...!".

* * *

Zu asitzeko eraman dituan nekeak ama zaarra ondatu dute; ez da ezertarako gauza...

Jo mazo batekin eta garbitu zazu, "ez bai du ezertako balio...!"

* * *

"Euskara, irten adi plazara!"

Ori zan atzoko irrintzia.

"Euskera, sartu adi ikastoletara!"

Au bear du izan gaurko irrintzia.

Ume euskaldunari emaiogun euskeraz kultura eta ikasi beza gañetik erdera. Orduan jarriko ditugu gure umeak Euskera maitatzeko bidean.

Beste bideetatik alperrik edo gabiltzala deritxot.

Gaurko egunetan (negargarria benetan) euskaldunak bere etxean Euskerakin bakarrik, eragospenak eta estorbuak besterik ez du billatzen.

Gauza orrela izan da, arritzekoa al da gure baserritar askoren irteera negargarria?

Ez dituzte beurok erru guztiak.

Ez, orixe!

LOIOLA'KO SENDIA

Aitaren aldetik Iñigo'ren aitita eta amama.

Joan Loiola'koa eukan aititak izena, eta Santxa Iraeta'koarekin ezkondu zen. Joan Oñaztar bandokoa eta Santxa Ganboatarra, biak arerioak izan arren maitasunarentzat ez dago mugarik.

Loiolako Joan gudazale artoa zan, eta bere bandoko beste batzuekin alkartuta, 1456. urtean, Azkoitia'ko eleizatean erronka edo desafio papera Gipuzkoa'ko urien aurka josita itxi eban: "Gure dorre-etxeak erre, gure etxeak il eta gure ondasunak lapurtu dozuezalako, zuoi Azkoitia, Azpeitia, Deba, Mutriku, Getari, Tolosa, Ordizia eta Segura'ko urioi guda gorria egingo deusugu, zuen pertsona eta ondasunak ondatu arte".

Ainbestereinoko arrokeriaz naska-naska egiñik, uri oneik "senide nagusien" dorre-etxeak erre eta ondatu, eta onein jabeak, guda gura ba'eben, mairuen aurka Andaluzia'ra bialdu ebezan.

Joan Loiola'koak Kadiz ondoko Ximena errira erbestertaturik joan bear izan eban...

Andik iru urte barru Enrike erregearen amnistiaz baliaturik euren etxeetara itzultzeko baimena lortu eban, baita euren dorre-etxeak berriz eragiteko baietza be, baina ez barriro dorre-etxe legez, orma lodi eta sendoz, ladriluz baino, guda egiteko balio ez dagien.

Orregatik gaurko Loiola dorre-etxea erdi arrizko eta erdi ladriluzko ikusiko dozu. Iñigo'ren aitita Joan Tolosan bapateko eriotzeaz il zan, zein urtetan ez dakigu.

Santxa Iñigoren amama 1.473. urtean il zan.

Amaren aldetiko Iñigoren aitita eta amama.

Aitita Martin Likona'koa lege gizona zan, eta bere jaioterria Ondarru zalako "doktoze Ondarru" deitzen eutsuen. Balladolizko bizkaitarren txanzillerian entzule eta Fernando errege katolikuaeren kontseilari izan zan.

1.459. urtean Azkoitiako "senide nagusien" Balda etxea erosi eban, eta azkoitiarren artean beti "bizkaitarra" izenaz ezagutua izan zan.

Iñigo'ren amama, Martinen emaztearen barri garbirik ez dakigu. Nongoa zan? Noz jaiot zan? Zelan eukan izena? Markese? Grazia? Maria Zarautz'koa? Kondailarien artean zenbat buru ainbat aburu.

Iñigoren aita.

Beltran Loiola'koa. 1.467. urtean Marina Likona'koarekin ezkondu zan, eta 13 seme-alaba izan ebezan.

Urte batzuk Enrique IV. erregearen serbitzuan jardun eban, eta 1.474-an, errege au il zanean, Kastillako erreinua norentzat izango zan guda sortu zanean, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak, "La Beltranejaren" aurka, Isabel'en aide jarri ziran.

Beltran Loiola'koak TGro eta Burgos'ko sitioan aurrengo lekuan jokatu eban, baita Hondarribia'ko gazteluaeren zaindaritzan ere. Azkenez Andaluzia'ko lurraldeetan mairuen aurka gudari izan zan, 1949. urtean Boadil erregea Afrika'ra bialdu arte.

Lan oneingatik Isabel eta Fernando erregeak Beltran'eri loiolatarrak antizifiatik zeuken Azpeitiako parrokiako zaindaritza, bere amarrenakin, ber-onartu eutsuen. Norbaitek esan dau Loiolako etxea Azpetiako parrokiako "gotzain" txiki bat legez zala. Loiolako nagusiak izendatzen ebazan parrokoa eta abadeak, amarrenak kobratu, eleizako kultura zaindu eta abar.

Iñigo'ren ama.

Marina Likona'koa. Iñigoren amari buruz, tamalez, gauza askorik ez dakigu. Ondarrutarra zala bai, Azkoitia bizi izan zala be bai, baita esan dogunez, 1.467. urtean Loiola'ko Beltran'ekin ezkondu zala. Iñigok bere autobiografian ez dau iñoiz be amarik aitatuten, Iñigo txiki zala il zala ziur esan daiteke.

Iñigoren koñata.

Madalena Araotz'tarra, Martinen emaztea. Emakume maitagarri onek bete eutsan Iñigori amaren zuloa. Bergara'koa zan, eta gaztetan Isabel erregeinaren "dama de honor" izan zan. Okañan Loiolako Martin'ekin ezkondu zanean erregeinak Andra Mariaren irudi txiki polit bat opari emon eutsan. Iñigok bere koñata asko maite eban. Geroago Iñigo Erroman bizi zanean jesulagun gazte batek here gurasoeekin asko gogoratzen zala autoritu eutsan Iñigori. Eta orduan Loiolako semeak gazte ari bere biotzeko eskutuki bat agertu eutsan: "nik bere neure errezu liburuan koñataren antz andia daukan estanpa-irudi bat daukat, eta ari begiratuta neure ototzetan nastu egiten nazenez, paper batekin estaltzen dot".

IÑAKI GOIKOETXEA S.J.

IPUIN-SARIKETEAK

Urtearen azkenerantza, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k urte guztietan Ipuin-Sariketea gertatzen dau eta aurten be izango da sariketa ori, emen orri barrenean agertzen diran oiñarri-arauak kontuan artzekotan.

Ipuinak idazteko sariketara dei egiteagaz iru elburu billatzen doguz.

Lenengoa, irakurleak ugaritzea. Ipuinak laburrak dirako eta aria argi daroela, irakurteko gozua sortzen dabe.

Oraintsu irakurri dogu euskeraz idatzita dagoan eta gai lez Salbamenaren Kondaira dauan Zabaleta ta Gaztañaga'ren liburu. Liburu ederra benetan eta sakona. Baiña olako liburuak irakurteko oiturea bear da. Liburu ori sekula euskeraz ezer irakurri ez dauan baten eskue-tan ipinten ba'dogu, laster gogaituko da irakurlea. Baiña oiturea daukan eta arazo orretan arduratuta dagoan baten eskuetan ipinten ba'dogu, janari gozua baiño be gozoagoa izango jako. Oiturea artzeko, ba, egokiak dira ipuina.

Bigarren elburua idazleak sortzea da. Gure ipuin-sariketara etorri dira sekula ezer idatzi ez daben bat baiño geiago, beste batzuk idazle naikoa barriak dira-

nak be bai. Ipuinak idaztea bide ona da idazteko zaletasuna lortzeko, baiña idazle barriari aolku bat emon bear dautsegu: Lenengoetan saririk lortu ez arren, ez biozkatu, ekin urrengotan be eta irakurri besteen ipuina eta aztertu zelan idatzita dagoen. Orrelan ipuinlari onak izatea lortuko dabe eta sariak irabazi be bai. Iraunkortasuna bear da.

Eta irugarren elburu bat be ba-daukagu: ZER gure aldizkari onetarako ipuin eder batzuk lortzea, orrelan aldizkaria dotoretu eta indartu daiten. Azkenean dana izango da euskerearen onerako.

Ipuinak askotarikoak izan daitezke: Kondairako jazokizun bat agertzen dabenak, baiña apain eta dotore; Euskelerriko edesti zarrak agertzen dabezenak, izan be arlo onetan gure erria oso aberatsa da; alegiak, piztiak eta abereak norki dirala, Grezia'tik edo Erroma'tik artuak naiz berton euskalerrian sortuak; Maiteminezkoak naiz oiturazkoak; jakingaietako ametsak agertzen dabezenak edo antziñako zaldunen tankerakoak; izpienak naiz ertzaiñenak; eta beste tankera askotakoak.

Etorri daitezela ba ugari ipuina eta pozik banatuko doguz sariak.

EUSKERAZALEAK

IPUIN-SARIKETA

(BILBOA'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

—Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bear ko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

—Ipuinak asmaurikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

—Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuina barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

—Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larra-tegi 14.2.^a, eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

—Sariak lau izango dira:

1.^a 40.000 pezeta

2.^a 30.000 pezeta

3.^a 20.000 pezeta

4.^a 10.000 pezeta

—Ipuinak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

Bizkaia beti

Gure erriaren aurrerapenagaitik.

Milla urtekoa eta gaurkoa dan gure kulturagaitik.

Gure erritarren ametsakaitik, bizkaitarrentzat onena dan guztiagaitik.

Gaur, atzo eta gero Bizkaia.

Bizkaia beti.

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CA-A IJE AHORROS
VIZCAINA